

## I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa  
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

## Foru Aldundia / Diputación Foral

**Nekazaritza Saila**

**Nekazaritzako foru diputatuaren 2158/2014 FORU AGINDUA, apirilaren 30ekoa. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen aldizkako ikuskapenak arautzen dira.**

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren helburua da bermatzea nekazaritzako produkzio-bitartekoen —produktuak aplikatzeko makinak, barne— erabilera-, eraginkortasun- eta segurtasun-baldintza egokiak betetzen dituztela. Sailak orobat lortu nahi du defentsa fitosanitarioko bitartekoen erabilera pertsonen zein animalien osasuna babesteko irizpideen menpe egotea eta bateragarria izatea ingurumena zaintzen duen nekazaritza iraunkor baten garapenarekin.

Araudiari dagokionez, irailaren 4ko 1311/2012 Errege Dekretuak, produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria lortzeko jarduerak esparrua ezartzen duenak, azaroaren 18ko 1702/2011 Errege Dekretuan ezarritako neurriak jasotzen ditu. Izan ere, azken errege dekretu horrek, produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen aldizkako ikuskaritzari buruzkoak, ikuskapenak arautzen ditu eta ikuskatu beharreko ekipo motak sailkatzen ditu.

Hain zuzen, produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen aldizkako ikuskaritzari buruzko azaroaren 18ko 1702/2011 Errege Dekretu horrek baldintzak, prozedurak eta metodologia ezartzen ditu 3. artikuluan deskribatutako ekipo fitosanitarioen derrigorrezko ikuskapenak egiteko, zeinak 2016ko azaroaren 26aren aurretik amaituta egon behar dira.

Ildo horretan, kontuan hartuta zer ezaugarri dituen Bizkaiko lehen sektoreak —dimentsio txikiko ustiategiak, produktuak aplikatzeko ekipo espezifikokoak, sektoreak masiboki onartzea nekazaritzako elikagaien kalitate-markak, zein iraunkortasuneko ingurumen-helburuak—, beharrezkoa da ikuskatu beharreko beste ekipo batzuk sartzea, 1702/2011 Errege Dekretuaren 3.3 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren (Nekazaritza Zerbitzuaren bidez) eskumenekoak dira defentsa fitosanitarioko bitartekoen erregistroa zein kontrola. Halaber, bere lurralde-eremuan egiten diren ikuskapenen programaren eta kudeaketaren ardura du, otsailaren 7ko 12/2012 Foru Dekretuaren babesean, zeinaren bidez onartzen den Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren egitura organikoaren araudia.

Hori dela eta, kontuan hartuta zer ezartzen duen Autonomia Erki-dego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundearen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b.1 artikulua eta zer eskumen ematen dizkidan Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17. eta 64. artikuluek, honako hau.

XEDATZEN DUT:

**XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua.— Xedea**

Foru agindu honen xedea da Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen aldizkako ikuskapenen sistema ezartzea eta haren funtzionamendua arautzea.

**Departamento de Agricultura**

**ORDEN FORAL de la diputada foral de Agricultura 2158/2014, de 30 de abril, por el que se regulan las inspecciones periódicas de los equipos de aplicación de productos fitosanitarios en el Territorio Histórico de Bizkaia.**

El Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia, tiene por objeto garantizar que los medios de producción agrícolas, incluida la maquinaria de aplicación, reúnan las debidas condiciones de utilidad, eficacia y seguridad y que la utilización de medios de defensa fitosanitaria se encuentren subordinados a los objetivos de protección de la salud de las personas y de los animales, y sea compatible con el desarrollo de una agricultura sostenible respetuosa con el medio ambiente.

Por su parte, el Real Decreto 1311/2012, de 4 de septiembre, por el que se establece el marco de actuación para conseguir un uso sostenible de los productos fitosanitarios, contempla las medidas establecidas en el Real Decreto 1702/2011, de 18 de noviembre, de inspecciones periódicas de los equipos de aplicación de productos fitosanitarios, en el que se incluyen la regulación de las inspecciones, y se tipifican los equipos a inspeccionar, entre otras cuestiones.

El Real Decreto 1702/2011, de 18 de noviembre, de inspecciones periódicas de los equipos de aplicación de productos fitosanitarios, establece los requisitos, procedimientos, y metodología para llevar a cabo las inspecciones obligatorias de los equipos fitosanitarios descritos en su artículo 3, de modo que estas deben estar finalizadas con anterioridad al 26 de noviembre de 2016.

En este sentido y dadas las características del sector primario de Bizkaia, con explotaciones de reducida dimensión, con equipos de aplicación específicos, masiva acogida sectorial a distintivos de calidad agroalimentarios, y objetivos ambientales de sostenibilidad, hacen necesaria la inclusión de otros tipos de equipos a inspeccionar, según lo dispuesto en el artículo 3.3 del Real Decreto 1702/2011.

El Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia por medio del Servicio Agrícola es el órgano competente responsable del registro y control de los medios de defensa fitosanitarios así como de la gestión y aplicación del programa de inspecciones que se lleve a cabo en su ámbito territorial, al amparo del Decreto Foral 12/2012, de 7 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento Orgánico del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia.

Por ello, de acuerdo con lo establecido en el artículo 7.b.1 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, y en uso de las facultades conferidas por los artículos 39 y 64 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.

DISPONGO:

**DISPOSICIONES GENERALES****Artículo 1.— Objeto**

La presente Orden Foral tiene por objeto establecer el sistema de inspecciones periódicas de equipos de aplicación de productos fitosanitarios en el ámbito territorial del Territorio Histórico de Bizkaia y regular su funcionamiento.

**2. artikulua.— Definizioak**

Foru honen ondorioetarako, aplikatu beharrekoak izango dira produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen aldizkako ikuskaritzei buruzko azaroaren 18ko 1702/2011 Errege Dekretuaren 2. artikuluan jasotako definizioak.

**3. artikulua.— Aplikazio-eremua**

Honako ekipo hauek ikuskatu behar dira:

1. Produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen aldizkako ikuskaritzei buruzko azaroaren 18ko 1702/2011 Errege Dekretuaren 3.1 artikuluan aipatzen diren ekipoen artean Bizkaian erabiltzen direnak.

2. Haien ezaugarriengatik Bizkaian erabiltzen diren beste ekipo batzuk, eskuko lainoztatze-motxilak izan ezik.

Ekipo horiek guztiak zentsu batean sartu behar dira, gero ikuskatu beharreko ekipoen titularrei eta ezaugarri buruzko datuak lortu ahal izateko.

IKUSKATU BEHARREKO EKIPOEN ZENTSUA

**4. artikulua.— Zentsua sortzea eta kudeatzea**

Ikuskatu beharreko Bizkaiko Lurralde Historikoko ekipoen zentsua sortzen da, zeina Nekazaritza Zerbitzuak kudeatuko duen.

**5. artikulua.— Ekipoak zentsuan sartzea**

1. Ikuskatu beharreko ekipoen zentsuan, ofizios sartuko dira lehen sektoreko nekazaritza- zein baso-produkzioan produktu fitosanitarioak aplikatzeko erabiltzen diren ekipoak, baldin eta abenduaren 10eko 6453/2009 Foru Aginduaren babesean Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean inskribatuta badaude. Foru agindu horren bidez, tratamendu fitosanitarioen tratamendu ekipoak eta ongarrien banaketa ekipoak Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean inskribatzea arautzen da.

2. Aitzitik, beste jarduera profesional batzuetan erabiltzen diren produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen kasuan eta berotegietan edo beste lokal itxi batzuetan erabiltzen direnen kasuan, titularrek eskatuta sartuko dira ekipook zentsuan, Nekazaritza Zerbitzuari eskaera egin ondoren.

3. Aurreko zenbakian aipatzen den eskaera, ikuskatu beharreko ekipoak zentsuan sartzeko dena, Nekazaritza Zerbitzuaren Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialak prestatutako eredu erabiliz egingo da.

**6. artikulua.— Zentsua eguneratzea**

1. Nekazaritza Zerbitzuak urtero eguneratuko du zentsua, abenduaren 31n, bajak eta ekipo berrien altak jasoaraziz. Ondoren, eguneratze hori Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari bidaliko dio, hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen.

2. Zentsua ofizios eguneratuko da, Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean inskribatutako produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoei dagokienez.

3. Nekazaritza- edo baso-erabilerarik gabeko ekipo mugikorrei buruzko informazioa eta berotegietan zein beste leku itxi batzuetan dauden ekipo finkoei buruzkoa, berriz, titularrek eskatuta eguneratuko da, edo, ofizios, kontrol ofizialen ondorioz aldaketak egon direla ikusten bada.

**7. artikulua.— Zentsuan jasotzen den informazioa**

1. Ikuskatu beharreko ekipoen zentsuak I. eranskinean ekipo mota bakoitzerako adierazten den informazioa jaso behar du, eta, datu pertsonalei dagokienez, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa bete behar da.

IKUSKAPENEN PROGRAMA, LEHENTASUNAK  
ETA ALDIZKAKOTASUNA

**8. artikulua.— Ikuskapenen programa**

1. Nekazaritza Zerbitzuak ikuskapenen urteko programa prestatuko du, non urtean ikuskatu behar diren ekipoak sartuko diren. Nekazaritza Zerbitzuak, halaber, ekipoak ikuskatzeko azken eguna

**Artículo 2.— Definiciones**

A efectos del presente Orden Foral resultarán de aplicación las definiciones contenidas en el artículo 2 de Real Decreto 1702/2011, de 18 de noviembre, de inspecciones periódicas de los equipos de aplicación de productos fitosanitarios.

**Artículo 3.— Ámbito de aplicación**

Se consideran objeto de inspección:

1. Todos los equipos a que se refiere el artículo 3.1 del Real Decreto 1702/2011, de 18 de noviembre, de inspecciones periódicas de los equipos de aplicación de productos fitosanitarios, y son utilizados en Bizkaia.

2. Otros equipos de aplicación que por sus características son utilizados en Bizkaia, a excepción de los pulverizadores manuales de mochila.

Todos estos equipos estarán incluidos en un censo que será la base para la obtención de los datos de las personas titulares y características de los equipos a inspeccionar.

CENSO DE EQUIPOS A INSPECCIONAR

**Artículo 4.— Creación y gestión**

Se crea el censo de equipos a inspeccionar del Territorio Histórico de Bizkaia que será gestionado por el Servicio Agrícola.

**Artículo 5.— Inclusión de equipos en el censo**

1. Serán incluidos de oficio en el censo de equipos a inspeccionar los equipos de aplicación de productos fitosanitarios utilizados en la producción primaria, agrícola y forestal, inscritos en el Registro Oficial de Maquinaria Agrícola al amparo de la Orden Foral 6453/2009, de 10 de diciembre, por la que se regula la inscripción de equipos de tratamientos fitosanitarios y equipos de distribución de fertilizantes en el Registro Oficial de Maquinaria Agrícola.

2. Los equipos de aplicación de productos fitosanitarios utilizados en otros usos profesionales, los equipos fijos situados en invernaderos y otros locales cerrados, serán incluidos en el censo a instancias de su titular, que tendrá la obligación de solicitar su inclusión en el censo ante el servicio Agrícola.

3. La solicitud de inclusión en el censo de equipos a inspeccionar a que se refiere el párrafo anterior, se realizará conforme al modelo facilitado por el Registro de maquinaria agrícola del Servicio Agrícola.

**Artículo 6.— Actualización del censo**

1. El Servicio Agrícola actualizará el censo a 31 de diciembre de cada año, con las bajas e incorporaciones de nuevos equipos y lo remitirá al Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente antes del 31 de marzo del año siguiente.

2. La actualización del censo en lo relativo a equipos de aplicación de productos fitosanitarios inscritos en el Registro Oficial de Maquinaria Agrícola, se realizará de oficio.

3. La información relativa a los equipos móviles de uso no agrario ni forestal, y los equipos fijos situados en invernaderos y otros locales cerrados, se actualizará a instancias de su titular o de oficio cuando como consecuencia de controles oficiales se observen cambios.

**Artículo 7.— Información recogida en el censo**

1. El censo de equipos a inspeccionar recogerá la información indicada en el anexo I para cada tipo de equipo, estando los datos personales sometidos a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal.

PROGRAMA DE INSPECCIONES,  
PRIORIDADES Y PERIODICIDAD

**Artículo 8.— Programa de inspecciones**

1. El Servicio Agrícola elaborará el programa anual de inspecciones que incluirá los equipos a inspeccionar durante el año correspondiente. El Servicio Agrícola, comunicará la fecha límite

zein den jakinaraziko die ikuskapenen urteko programan sartuta dauden ekipoen titularrei. Jakinarazpena ekipoa ikuskatzeko epea amaitu baino hilabete bi lehenago egingo da, beranduenez.

2. Produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen lehen esku-ratzea 2011ko abenduaren 10arren aurrekoa bada, orduan, ekipo horiek 2016ko azaroaren 26ra arteko ikuskapenen programan sartuko dira, eta lehenatasuna izango dute gehien erabiltzen diren eki-poek edo arrisku gehien dakartenen.

3. Ikuskapenen lehenatasuna ezartzeko, kontuan hartuko dira ezaugarriak, lehen sektorearen egitura eta ikuskatu beharreko eki-poak asko ez izatea. Horrez gainera, irizpide hauei jarraituko zaie:

- Nekazaritzako kooperatibak, ekoizleen beste elkarte batzuk eta nekazaritzako elikagaien kalitate-marka edo/eta ekoiz-pen-sistemen pean diharduten ustiategiak.
- Gainerako nekazaritzako ustiategiak.
- Beste interesdun batzuk.

4. Ekipo berri guztiak, hau da, 2011ko abenduaren 9aren ondo-ren eskuratutakoak, lehen bost urteen barruan ikuskatu behar dira; beraz, ekipoek bost urte betetzen duten urteko ikuskapen-progra-man sartuko dira.

5. 2016ko azaroaren 26tik aurrera, honako ekipo hauek sar-tuko dira ikuskapenen urteko programan: azken ikuskapenetik bost urte bete dituzten ekipoak, eta nekazaritza-zerbitzuen enpresen, nekazaritzako kooperatiben, beste nekazari-elkarte batzuen eta onda-sun-erkidegoen ekipoak, baldin eta azken ikuskapenetik hiru urte bete badira.

6. 2020. urtetik aurrera, berriz, dagokion urtean zehar hiru urte betetzen dituzten ekipo guztiak eta azken ikuskapenetik hiru urte bete dituztenak sartuko dira ikuskapenen urteko programan.

#### FITOSANITARIOAK APLIKATZEKO EKIPOEN IKUSKAPEN TEKNIKOKO ESTAZIOAK (FAEITE)

### 9. artikulua.—FAEITEen baldintzak

1. Fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen ikuskapen teknikoko estazioak (FAEITEak) entitate publiko edo pribatu bakarrak dira, 1702/2011 Errege Dekretuaren 7, 8 eta 9. artikuluetan ezarritako-arekin bat behar bezala egiaztatuta egonik produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoak ikuskatu ditzaketanak.

### 10. artikulua.—Ikuskapenak egitea

1. Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak zuzenean kude-atuko du produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoak ikuskatzeko zerbitzua, FAEITE baten bidez. Estazioa Nekazaritza Zerbitzuaren peko teknikariak osatuko dute, zeinek 1702/2011 Errege Dekretuak ezarritako baldintzak bete behar dituzten.

2. Ikuskapenen urteko programan sartutako ekipoen titula-rrak arduratuko dira haien ekipoa ikuskatua izan dadin Nekazari-tza Zerbitzuak aurretik ezarri eta jakinaraziko duen epean. Horre-tarako, titularrak, aurretik, eskaera egin behar du eta dagozkion tasak ordaindu.

3. Nekazaritza Zerbitzuak titularrei jakinaraziko die zer segurtasun- eta garbiketa-baldintzatan aurkeztu behar diren eki-poak, ikuskapena egiteko. Baldintza horietan aurkeztu ezean, eki-poak atzera botako dira, eta ez da ikuskapenik egingo.

4. Ikuskapenak egiteko, Nekazaritza Zerbitzuaren FAEI-TEak kontuan hartuko ditu bai produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen aldizkako ikuskaritza buruzko azaroaren 18ko 1702/2011 Errege Dekretuaren 11. artikulua, bai Nekazaritza, Elikadura eta Ingu-rumen Ministerioak emandako ikuskapenen eskuliburuak edo —hala-korik ezean— Nekazaritza Zerbitzuaren beraren eskuliburuak, maia-tzaren 16ko 1053/2012 Ministro-agindua bidez izendatutako erreferentziako laborategi nazionalak ziurtatuak.

### 11. artikulua.—Ikuskapenen emaitzak

1. Behin ekipo bat ikuskatuta, FAEITEak ikuskapen-egiaz-tagiri bat emango du, zeina interesdunari bidali edo emango zaion emaitzen buletinarekin batera. Agiri biek gutxieneko informazioa eduki

para inspeccionar su equipo a las personas titulares de equipos a inspeccionar incluidos en el programa anual de inspecciones. Esta comunicación se realizará con al menos dos meses de anticipación a la fecha límite para inspeccionar el equipo.

2. Los equipos de aplicación, cuya primera adquisición sea anterior al 10 de diciembre de 2011, serán incluidos en la progra-mación de las inspecciones hasta el 26 de noviembre de 2016, prio-rizando la inspección de aquellos equipos de mayor utilización o que ofrezcan un mayor riesgo.

3. La priorización de las inspecciones, teniendo las caracte-rísticas, estructura del sector primario, y reducido número de equi-pos a inspeccionar, se realizarán con arreglo a los siguientes criterios:

- Cooperativas agrarias, otras agrupaciones de productores y explotaciones acogidas a distintos de calidad agroali-mentarios y/o sistemas de producción.
- Resto de explotaciones agrícolas.
- Otros interesados.

4. Todos los equipos nuevos adquiridos después del 9 de diciembre de 2011, deberán inspeccionarse, dentro de los cinco primeros años, por lo que serán incluidos en el programa de ins-pección correspondiente al año en que el equipo cumpla 5 años de antigüedad.

5. A partir del 26 de noviembre de 2016, el programa anual de inspecciones, incluirá a los equipos que cumplan cinco años desde su última inspección y a los equipos cuyos titulares sean empre-sas de servicios de trabajos agrarios, cooperativas agrarias y otras agrupaciones de agricultores, así como comunidades de Bienes, que cumplan tres años desde su última inspección.

6. A partir del año 2020, el programa anual de inspecciones incluirá todos los equipos que cumplan durante el año en curso, tres años de antigüedad o tres años desde la última inspección técnica.

#### ESTACIONES DE INSPECCIÓN TÉCNICA DE EQUIPOS DE APLICACIÓN DE FITOSANITARIOS (I.T.E.A.F.)

### Artículo 9.—Requisitos de las I.T.E.A.F.

1. Las Estaciones de Inspección Técnica de Equipos de Apli-cación de fitosanitarios (I.T.E.A.F.) son las únicas entidades, públi-cas o privadas, que debidamente acreditadas según lo dispuesto en los artículos 7, 8 y 9 del Real Decreto 1702/2011, tienen la capaci-dad de realizar la inspección de equipos de aplicación fitosanitarios.

### Artículo 10.—Realización de las inspecciones

1. La gestión del servicio de inspección de equipos de aplica-ción fitosanitarios se realizará directamente por el Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia, por medio de una I.T.E.A.F. constituida por personal técnico y dependiente del Servicio Agrícola que cumple los requisitos oportunos del Real Decreto 1702/2011.

2. Las personas titulares de equipos incluidos en el programa anual de inspecciones serán los responsables de someter su equipo a inspección en el plazo establecido y comunicado previamente por el Servicio Agrícola, previa solicitud de los equipos a inspec-cionar y pago de las tasas oportunas.

3. El Servicio Agrícola informará a las personas titulares de los equipos sobre los requisitos de seguridad y limpieza necesari-os para presentarlos a la inspección. En caso de incumplimiento serán rechazados y no se realizará la inspección.

4. La I.T.E.A.F. del Servicio Agrícola deberán realizar las ins-pecciones según lo establecido en el artículo 11 del Real Decreto 1702/2011, de 18 de noviembre, de inspecciones periódicas de los equi-pos de aplicación de productos fitosanitarios y de acuerdo con el Manual de Inspecciones, facilitado por el Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente, o en su defecto, los propios Manuales del Servicio Agrícola avalados por el Laboratorio Nacional de Referencia designado por la orden ministerial AAA 1053/2012, de 16 de mayo.

### Artículo 11.—Resultado de las inspecciones

1. Una vez finalizada la inspección de un equipo, la I.T.E.A.F. emitirá un certificado de inspección, que será remitido o entregado a la persona interesada, junto con un boletín de resultados. Ambos

behar dute, hain zuzen, 1702/2011 Errege Dekretuaren III. eranskinean adierazirikoa. FAEITEak, gutxienez, 5 urtez gorde behar du agiri bien kopia; nahi izanez gero, formatu elektronikoa erabil dezake horretarako.

2. Ikuskapenaren emaitza positiboa bada, FAEITEak bereizgarri autoitsaskor bat emango die ekipoen titularrei, ekipoan ipintzeko ondo ikusteko leku batean. Horri dagokionez, Nekazaritza Zerbitzuak bereizgarri-eredu bat onartuko du, eta, bertan, datu hauek agertuko dira, gutxienez: ekipoaren hurrengo ikuskapenaren azken eguna, FAEITEaren identifikazioa eta ikuskapen-zenbakia.

3. Ikuskapenaren emaitza negatiboa bada, FAEITEak hala islatuko du ikuskapen-egiaztagirian; bertan orobat adieraziko du FAEITEan beste ikuskapen bat egin behar dela lehen ikuskapena egin den egunetik 30 egun igaro baino lehen. Ondorioz, ekipoa ezingo da erabili tratamenduak aplikatzeko lanetan, harik eta ikuskapenean emaitza positiboa lortu arte.

4. Urtero, Bizkaian egindako ikuskapenen emaitzei buruzko txosten bat egingo du Nekazaritza Zerbitzuak, eta Nekazaritza, Elidakura eta Ingurumen Ministerioari hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen bidaliko dio, alderdi biek adostutako formatu digitalean.

## 12. artikulua.—*Ikuskapen-zerbitzuak direla eta aplikatu daitezkeen tasak*

1. FAEITEek ikuskapen-zerbitzuak emateak tasa batzuk sortuko ditu, zeinen zenbatekoak elementu kuantitatibo gisa sartuko diren azaroaren 27ko 131/1990 Foru Dekretuan (haren bidez, teknikari-fakultatiboek zerbitzu agronomikoak kudeatzearen ziozko tasaren aplikazioa erabaki eta haren arautzea garatzen da).

2. Produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen titularrek (pertsona fisikoek edo juridikoek) ordaindu behar dituzte tasak, ikuskapenerako eskaera egiten den unean bertan likidatu behar direnak.

3. Foru Aginte honetan ezartzen diren tasak kudeatu, likidatu eta eguneratzeko, arloko indarreko araudiak xedatutakoa beteko da.

### KONTROLAK, ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

## 13. artikulua.—*Kontrolak, arau-hausteak eta zehapenak*

1. Azaroaren 18ko 1702/2011 Errege Dekretuan ezarritako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, honako arau-hauste eta zehapen hauek aplikatuko dira: Landare Osasunari buruzko azaroaren 20ko 43/2002 Legean eta ekainaren 22ko 1945/1983 Errege Dekretuan jasotakoak (errege dekretu horren bidez, kontsumitzailearen defentsaren zein nekazaritzako elikagaien produkzioaren arloko arau-hausteak eta zehapenak arautzen dira).

### AZKEN XEDAPENA

Foru Aginte hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharramunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2014ko apirilaren 30ean.

Nekazaritzako foru diputatua,  
IRENE PARDO PORTILLO

### I. ERANSKINA

## IKUSKATU BEHARREKO EKIPOEN ZENTSUAN JASO BEHAR DEN INFORMAZIOA

Ikuskatu beharreko ekipoen zentsuan, datu hauek sartuko dira:

1. Produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoak:
  - Titularren izena/sozietate-izena.
  - Titularren NAN/IFZa.
  - Marka.
  - Modeloa.
  - Makina mota (UNE 68051 araua).
  - Bastidore-zenbakia.
  - Titularrak zein herritan egiten duen jarduera nagusia.

documentos, deberán contener la información mínima, que figura en el Anexo III del Real Decreto 1702/2011. La I.T.E.A.F., deberá conservar copia de ambos documentos durante al menos 5 años, pudiendo conservar estos documentos en formato electrónico.

2. Cuando el resultado de la inspección sea favorable, la I.T.E.A.F. entregará al titular del equipo un distintivo autoadhesivo que se deberá colocar en un lugar visible del equipo. El distintivo se ajustará al modelo aprobado por el Servicio Agrícola y deberá indicar al menos, el año límite en que el equipo tiene que pasar la próxima inspección, la identificación de la I.T.E.A.F. y el número indicativo de la inspección.

3. Cuando el resultado de la inspección sea desfavorable, la I.T.E.A.F. lo reflejará en el certificado de inspección e indicará que debe realizarse una nueva inspección en la I.T.E.A.F., en un plazo máximo de 30 días, a contar desde el mismo día de la primera inspección. El equipo no deberá ser utilizado en la realización de tratamientos hasta que sea inspeccionado con resultado positivo.

4. El Servicio Agrícola elaborará un informe anual de resultados de las inspecciones realizadas en Bizkaia y lo remitirá al Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente, antes del 31 de marzo del año siguiente, en el formato digital que sea acordado por ambas partes.

## Artículo 12.—*Tasas aplicables por la prestación de servicios de inspección*

1. La prestación de los servicios de inspección por las I.T.E.A.F. generará unas tasas cuyas cuantías se incluirán como nuevo elemento cuantitativo en el Decreto Foral 131/1990, de 27 de noviembre, por el que se acuerda la aplicación y se desarrolla la regulación de la tasa por gestión técnico-facultativa de servicios agronómicos.

2. Estarán obligados al pago de las tasas las personas físicas o jurídicas titulares de los equipos de aplicación fitosanitarios que soliciten la inspección, la liquidación de las tasas se efectuarán en el momento de la solicitud.

3. La gestión, liquidación y actualización de las tasas establecidas en la presente Orden Foral se ajustarán a lo dispuesto en la normativa foral vigente en la materia.

### CONTROLES, INFRACCIONES Y SANCIONES

## Artículo 13.—*Controles, infracciones y sanciones*

1. Las infracciones y sanciones derivadas del incumplimiento de las obligaciones establecidas en el Real Decreto 1702/2011, de 18 de noviembre, se aplicarán por medio de la Ley 43/2002, de 20 de noviembre, de sanidad vegetal, y por las previstas en el Real Decreto 1945/1983, de 22 de junio, por el que se regulan las infracciones y sanciones en materia de defensa del consumidor y de la producción agroalimentaria.

### DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 30 de abril de 2014.

La diputada foral de Agricultura,  
IRENE PARDO PORTILLO

### ANEXO I

## INFORMACIÓN RECOGIDA EN EL CENSO DE EQUIPOS A INSPECCIONAR

El censo de equipos a inspeccionar incluirá la siguiente información:

1. Equipos de aplicación de productos fitosanitarios:
  - Nombre/Razón social del titular.
  - DNI/NIF del titular.
  - Marca.
  - Modelo.
  - Género de la máquina (norma U.N.E. 68051).
  - Número de bastidor.
  - Localidad donde radica la parte principal de la actividad del titular.

2. Berotegietan edo beste leku itxi batzuetan instalatutako ekipoak:

- Titularraren izena/sozietate-izena.
- Titularraren NANA/IFZa.
- Lainoztatze-sistema.
- Ponpa.
- Tanga.
- Aire-unitatea.
- Tratamendu-azalera.
- Ekipoaren kokalekua.

(I-892)

2. Equipos instalados en el interior de invernaderos u otros locales cerrados:

- Nombre/Razón social del titular.
- DNI/NIF del titular.
- Sistema de pulverización.
- Bomba.
- Depósito.
- Unidad de aire.
- Superficie de tratamiento.
- Localización del equipo.

(I-892)